



AGINDUA, 2008KO URRIAREN 15EKOA,  
INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILBURUARENA;  
HONEN BIDEZ, HONDAKIN  
ARRISKUTSUEN EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO PREBENTZIO ETA  
KUDEAKETA PLANA ONARTZEN DA.

ORDEN DE 15 DE OCTUBRE DE 2008 DE  
LA CONSEJERA DE MEDIO AMBIENTE Y  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO POR LA  
QUE SE APRUEBA EL PLAN DE  
PREVENCIÓN Y GESTIÓN DE RESIDUOS  
PELIGROSOS DE LA COMUNIDAD  
AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO, 2008-  
2011.

“2002-2012 aldirako Ingurumeneko VI. Ekintza-programa komunitarioarekin” ingurumeneko baliabideen eta baliabide horien nahiz hondakinen kudeaketa eraginkorragoa lortu nahi da, ekoizpen eta kontsumo iraunkorragorako ereduak ziurtatzeko. Era horretara, baliabideen erabilera eta hondakinen sorrera hazkunde ekonomikoaren tasarengandik bereizi nahi dira, eta baliabide berriztagarrien nahiz berriztagarriak ez diren erabilera ingurumenak bereganatu dezakeena baino gehiago ez dadila izan bermatu. Oraindik lantzen ari diren Europako xedapen berriekin, esaterako, “Hondakinak saihestu eta birziklatzeko estrategia” eta “Hondakinen Esparru Zuzentarauaren proposamena”, agindu hori bete nahi da, azken urteotako errealitate eta joeretatik abiatuta.

Una de las cuatro metas del “VI Programa de Acción Comunitario de Medio Ambiente (2002-2012)” plantea alcanzar *“una mayor eficiencia en los recursos y una gestión de los mismos y de los residuos para asegurar modelos de producción y consumo más sostenibles, disociando de este modo el uso de los recursos y la generación de residuos y la tasa de crecimiento económico, y para garantizar que el consumo de los recursos tanto renovables como no renovables no exceda la capacidad de absorción del medio ambiente”*. Las disposiciones europeas más recientes o aún en elaboración, tales como la “Estrategia sobre Prevención y Reciclado de Residuos” y la “Propuesta de Directiva Marco de Residuos”, pretenden dar respuesta a este mandato partiendo de las realidades y tendencias observadas en los últimos años.

Hondakinen sorreraren arazoa konpontzeko Europak egin duen apustua dagoeneko jaso zen euskal araudian, Euskal Herriko ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorrean. Lege horren 77. artikuluan xedatuta dagoenez, *“Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organari dagokio hondakin arriskutsuentzat eta beste zenbait hondakin-motarentzat plan arteztaileak egitea, eta plan horietako jarraibideak bete beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan garatzen diren ekoizpen eta kudeaketa publiko zein pribatuko jarduerak”*.

La apuesta europea por resolver el problema asociado a la generación de residuos fue ya trasladada al marco normativo vasco con la “Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco”, que en su artículo 77 dispone que *“corresponderá al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco la elaboración de planes directores de residuos peligrosos y otras tipologías de residuos, a cuyas directrices deberán someterse las actividades de producción y gestión públicas o privadas que se desarrollen en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco”*.

Beste alde batetik, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2001ko ekainaren 4an, 2002-2020 aldirako garapen

Por otro lado, el Consejo de Gobierno procedió con fecha 4 de junio de 2001 a la aprobación de la Estrategia ambiental



jasangarrirako ingurumen-estrategia onartu zuen. Ingurumenaren arloan lortu beharreko bost jomugetako bat, estrategia horretan ezarri zenez, "baliabide eta hondakinen kudeaketa arduratsua" da. Bestalde, "2007-2010 aldirako Ingurumeneko II. Esparru Programak", Euskal Ingurumen Estrategiaren jarduerak epe motzera zehazten dituenak, baliabide naturalen kontsumo arduratsua begiesten du, lehiakortasuna hobetzeko eraginkortasun maila ikerketaren eta berrikuntzaren bidez optimizatuz, eta hondakinen sorrera murriztea hondakin horiek kudeaketa hobetuz.

Abiaturuko tresna horiek Plan honen jarduera-eremua osatzen duten berariazko hainbat planetan bermatzen dira. Horrela:

- "Ingurumenaren aldetik Jasangarria den 2006-2010 aldirako Kontsumo-plana" lagungarri izan beharko da gure jendartean indarrean dagoen kontsumo-ereduari loturik gero eta handiagoa den hondakin-sorkuntza saihesteko.
- "Hondakin Ez-arriskutsuen 2008-2011 aldirako Kudeaketa Plana"rekin hondakin ez-arriskutsuen arazoei heltzeko beharrezko tresnak antolatuko dira; arriskutsuena baino sorkuntza-tasa handiagoa dute ez-arriskutsuek.
- "Lurzoru Kutsatuen 2007-2012 aldirako Plana"rekin, gure erkidegoko arazo historiko bati erantzun dio; hondakin arriskutsu gisa kudeatzen den lur kopuruan islatzen da arazo hori.
- Foru aldundiekin koordinatuta landutako "EAEko Hiri-hondakinen plangintza eta kudeaketarako jarraibide"etan eta horiei dagozkien hiri-hondakinen foru-planetan, EAEko hiri-hondakinen plangintza eta kudeaketa egiteko jarraibideak ezartzen dira, eta, besteak beste, etxeko hondakin arriskutsuen zenbait alderdiri heltzen zaie.
- Aplikazio-esparru murriztagoa duten beste plan batzuk, hala nola,

para el desarrollo sostenible 2002-2020, en la que identifica la "gestión responsable de los recursos y de los residuos" como una de sus cinco metas ambientales. Por su parte, el "II Programa Marco Ambiental (2007-2010)", que concreta las actuaciones de la Estrategia Ambiental Vasca a corto plazo, plantea tanto el fomento del consumo responsable de los recursos naturales, optimizando los niveles de eficiencia a través de la investigación y la innovación hacia la mejora de la competitividad, como la reducción de la producción de residuos y mejora de su gestión.

Estos instrumentos marco se apoyan en varios Planes específicos que complementan el campo de actuación del presente Plan. Así:

- El "Plan de Consumo Ambientalmente Sostenible 2006-2010" debe ayudar a prevenir la cada vez mayor generación de residuos asociada al modelo de consumo vigente en nuestra sociedad.
- El "Plan de Gestión de Residuos No Peligrosos 2008-2011" articulará las herramientas necesarias para abordar la problemática de los residuos no peligrosos, cuya tasa de generación supera a la de los peligrosos.
- El "Plan de Suelos Contaminados 2007-2012" da respuesta a un problema histórico de nuestra comunidad, que se refleja en la cantidad de tierras contaminadas gestionadas como residuos peligrosos.
- Las "Directrices para la planificación y gestión de los Residuos Urbanos de la CAPV", elaboradas en coordinación con las Diputaciones Forales y sus respectivos planes forales de residuos urbanos, establecen las directrices para la planificación y gestión de los residuos urbanos en la CAPV, abordando entre otros aspectos la realidad de los residuos peligrosos del hogar.
- Otros planes con ámbitos de aplicación más reducidos, tales como



*“Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako EAEko ikastetxeetan sortzen diren Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa Plan”*ean edo *“Sektore primarioak EAEn sortzen dituen Hondakinen Plan”*ean, plangintza-tresna orokorragoek hartu ahal ez dituzten alor edo jardueretako berariazko beharrei heltzen zaie.

el *“Plan de Gestión de los Residuos Peligrosos generados en los centros públicos de enseñanza no universitaria de la CAPV”* o el *“Plan de Residuos generados por el Sector Primario de la CAPV”*, abordan las necesidades específicas de sectores o actividades que, por su naturaleza, pueden resultar menos receptivos a las herramientas de planificación más genéricas.

Testuinguru horretan, *“Hondakin Arriskutsuen 2008-2011 aldirako EAEko Prebentzio eta Kudeaketa Plana”*rekin, hondakin arriskutsuen arloan plangintza-tresna bat izateko beharri erantzuten zaio. Tresna horretan, erkidegoko printzipio eta planteamendu berrienak sartzen dira, eta 2007-2010 aldirako Ingurumeneko Esparru Programan adierazitako ikuspegira heltzeko EAEko ingurumen-organoak diseinatutako gainerako tresnei batzen zaie. Aldi berean, ingurumen-organoaren datozen lau urteetako jarduna dago diseinatuta bertan, aurreko *“Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeko 2003-2006 aldirako EAEko Plana”*ren indarraldia agortu ondoren.

En este contexto, el presente *“Plan de Prevención y Gestión de Residuos Peligrosos de la CAPV 2008-2011”* responde a la necesidad de disponer de una herramienta de planificación en materia de residuos peligrosos que integre los principios y los planteamientos comunitarios más actuales, incorporándose al resto de herramientas diseñadas por el órgano ambiental de la CAPV para alcanzar la visión enunciada en el Programa Marco Ambiental 2007-2010, a la vez que diseña la actuación del órgano ambiental a lo largo de los próximos cuatro años, al haberse agotado el periodo de vigencia del anterior *“Plan de Gestión de Residuos Peligrosos de la CAPV 2003-2006”*.

Eztabaidan parte hartu eta landutako agiria onartzeko kontsulta egin zaie inplikaturako eragile guztiei, Administrazio Publikoei, erakundeei, enpresa eta sindikatuei eta elkarte ekologistei. Era berean, jendaurreko informaziorako epe bat zabaltzea erabaki zen, herritarrek *“Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa eta Prebentziorako 2008-2011 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Plana”* agiriaren edukia ezagutu zezaten.

En orden a garantizar la participación en el debate y aprobación del documento elaborado, se han realizado consultas a todos los agentes implicados, Administraciones Públicas, instituciones, organizaciones empresariales y sindicales, y organizaciones ecologistas. Asimismo se acordó la apertura de un periodo de información pública que permitió a todos los ciudadanos acceder al contenido del documento *“Plan de Gestión y Prevención de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2008-2011”*

Euskal Herriko Ingurumen Batzordeak, 2008ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, *“Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa eta Prebentziorako 2008-2011 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Plana”*ren aldeko txostena egin zuen.

La Comisión Ambiental del País Vasco en sesión de 30 de enero de 2008, ha informado favorablemente el *“Plan de Gestión y Prevención de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2008-2011”*



"JAURLARITZAREN LEGEA"-ri buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuan esleitzen zaizkidan eskumenez baliatuz,

En ejercicio de las competencias atribuidas en el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de la Ley de Gobierno y el Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos,

**HAU XEDATU DUT:****DISPONGO**

**Lehena.-** "Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa eta Prebentziorako 2008-2011 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Plana" onartzea; erabaki honen eranskin gisa doa Plana.

**Primero.-** Aprobar el "Plan de Gestión y Prevención de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2008-2011", que figura como anexo al presente Acuerdo.

**Bigarrena.-** "Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa eta Prebentziorako 2008-2011 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Plana"ren edukia hedatzeko behar adina neurri hartzea.

**Segundo.-** Adoptar cuantas medidas sean necesarias para la difusión del contenido del "Plan de Gestión y Prevención de Residuos Peligrosos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2008-2011" .

Gasteizen, 2008ko urriaren 15ean.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de octubre de 2008

**INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILBURUA  
LA CONSEJERA DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO**



**ESTHER LARRAÑAGA GALDOS**